

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

ALTZAIRUGINTZA -ROOM4STEEL GELA (2. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2025/2026

ARLOA: Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK: 2,10 ECTS (*) kreditu

MATRIKULA TASA: 20,00 € (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA: ALBERTO OLEAGA PARAMO

AURKEZPENA

Ikastaroan altzairugintzaren ikuspegi orokorra lantzen da, prozesu eta produktu siderurgikoetatik hasi eta planten digitalizazioraino doazen gaiak jorratuz. Altzairuaren aplikazio-sektoreak aurkezten dira, baita altzairua fabrikatzeko erabiltzen diren makineria ere. Altzairugintzaren iraunkortasuna eta zirkulartasuna azpimarratzen dira, bereziki energia-iturri berriak sartzea eta instalazioen eta prozesuen energia-eraginkortasuna hobetzea. Azkenik, ikastaroa proiektu siderurgikoen kudeaketarekin, talentuaren kudeaketarekin eta sektoreak dituen erronkekin osatuko da. Ikastaroa hiru orduko zazpi saiotan banatzen da, hileroko saio bat:

- 2025ko urriaren 29an - 1. SAIOA: PROZESU ETA PRODUKTU SIDERURGIKOAK
- 2025ko azaroren 19an - 2. SAIOA: PRODUKTUAK ETA ERABILERA-SEKTOREAK
- 2025ko abenduaren 10an - 3. SAIOA: MAKINERIA ETA PROZESUA
- 2026eko urtarrilaren 21ean - 4. SAIOA: IRAUNKORTASUNA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA
- 2026eko otsailaren 25an - 5. SAIOA: HIDROGENOA ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNA
- 2026eko martxoaren 18an - 6. SAIOA: 4.0 INDUSTRIA. ZENBAIT ARRAKASTA KASUAK
- 2026eko apirilak 15an - 7. SAIOA: PROIEKTUEN KUDEAKETA + ERRONKA TEKNOLOGIKOAK + TALENTUAREN KUDEAKETA.

ZURE BILA GABILTZA

- Altzairugintzan interesa duten UPV/EHUko graduako eta masterreko ikasleak.
- Altzairugintzan interesa duten beste unibertsitate batzuetako graduako eta masterreko ikasleak.

- SIDEREXeko (Euskadiko Siderurgiako Kluster Elkartea) bazkide diren enpresetako profesionalak
- UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileak, altzairuaren industrian interesa dutenak.

IRTEERA PROFESIONALAK

Industria Siderurgikoa.

BALDINTZAK

- Altzairugintzarekin lotura duten gaiak lantzen dituen gradu edo master zientifiko edo tekniko bateko ikaslea izatea. Titulazio hau edozein unibertsitatetako izan daiteke. Unibertsitateko matrikula-ziurtagiria aurkeztu behar da.
- SIDEREXeko enpresa bazkideren bateko langilea izatea. Idazki labur bat aurkeztu behar da, zein enpresatan lan egiten duen eta zein lanpostu betetzen duen adieraziz.
- UPV/EHUko IIP izatea. Ofizioz egiaztatuko da.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2025/10/29tik 2026/04/15era

IRAKASKUNTZAMODALITATEA: Presentziala

EMATEKO TOKIA: Bilboko Ingeniaritza Eskola

HIZKUNTZA: Gaztelaniaz

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Bilboko Ingeniaritza Eskola

HELBIDEA: Torres Quevedo ingeniariaren plaza 1 zk. 48013 Bilbo

TELEFONOA: 94 601 4804

POSTA ELEKTRONIKOA: bie.etengabekoprestakuntza@ehu.eus
formacioncontinua.eib@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.